


zakilixut

© Olariagak



Allande Sokarros | MAULE

ATZEKOZ AURRERA



CHRISTOPHE DE PRADA-SAMARUTI

France 3ko kamerak, Zuberoari buruzko programa grabatzen, Mauleko Andurain gazteluan.

Jauregi dotorean, gaitzeko karmañola!

Gaurko 17:15ean ikusiko den France 3ko 'Reflets Sud-Ouest' saioa Maulen grabatu zuten

Mauleko Andurain jauregiaren sala handian margoeko erratrak dauzkaten jaunak ohituta daude gauza asko ikusterat, leku eder horrek harrera egiten baitie, noizean behin, hitzaldi zein kantaldiei. Haatik, iragan asteazkeneko zalapartarik gutxitan ikusi izan dute, telebista kamerak eta hauen erabiltzaileak, argietako teknikariak, soinuaz arduratzen zirenak eta beste hainbat lagun harat eta honat zabiltzanak, dena keinu eta oihu. Zenbait, haatik, jauregiko kadira eta besaulkietan jarrita zeuden mugimenduei liluraz begira.

Eseritakoen aurrean ezarritako lehen mahai baten gainean, odolki eta lukainka jaki bat bazen, lursagarrez hornitua eta bigarren batean, aldiz, kolore ezberdinetako espartina pareak. Geroxeago, bizirik ziruditen baina barnea lastoz beteta zaukaten azeri bat eta hartz bat ekarriko zituzten. Oilarrak ere egongo ziren baina hauek izen hori daramaten zuberotar abesti taldekoak zeuden, kantuz jarduten.

Gauza ezberdin hauen guztien lotura zen, Akitania eskualdeko France 3 telebistaren *Reflets Sud-Ouest* saioaren grabaketa bat. Emanaldi hori, gaur bertan, arratsaldeko 17:15etik harat ikusgai izango da eta Mauleko inguruneak eta bizila-


gunak izango dira protagonista. Alexandre Schabel aurkezlea eta haren laguntzaileak ziren Andurain jauregiko jaun eta jabe jarri, Azemar de Fabrègue jabeen baimenarekin.

Hizlari ugari eta hiru erreportaia

XVII. mendeko egoitza horren barne dotoretan grabatutako saioan hizlari egongo dira: Maule gaineko ostatu ezaguneko Brigitte Etxetto sukaldaria —hark egina zen aipatutako jakia—, Jean-Pierre Errekart espartina egilea, Marianne Bouillon eta Emmanuelle Laborie Sohütako filosofia-tabernako arduradunak, Tittika Rekalit Xiberoko Botza irratikoa, Errobert Larrandaburu mendizalea, Jean-Paul Urkuain Organbideska Lepo Askea elkartekoa, Jean-Louis Berterreix hildako abereen berpizlea edota Mauleko Sure andere gozogileak.

Saioan zehar ere, aurretik grabatutako hiru erreportaia ikusiko dira: Mendikotako Üztaro ederlan tailerraz, Mitikileko Laurent Caudine *Comtoises* erloju konpontzaileaz eta erdarazko *Sources de la Bidouze* bezala oso ezaguna den Ereitiako iturburuak lekuaz. Oronen buru, saioaren izenak berak dioenez, Zuberoaz edo behintzat Mauleko inguruneaz isla bat eman nahi izango du emanaldi horrek. Espero dezagun ez dela itxura hutsezkoa izango...

ORAIN DENAK INTERNETEN... WWW.MEGADENDA.COM



IRUÑA
Baiona etorb., 52 Golem
948 17 55 38



DONOSTIA
Bergara, 6
943 42 63 50



BILBO
Licenciado Poza, 11
944 43 47 08

LIBRERIA
HERRIAK
LIBURUDENDA



IRUN
Colon pasealekua
943 63 17 26

